



Bakartxo Ruiz (EH Bildu) eta Ramon Alzorritz (PSN), atzoko osoko bilkuran. INIGO URIZ / FOKU

Euskarazko artari bai, lanpostu elebidunei ez

Nafarroako Legebiltzarrak mozio bat onartu du tramite telematikoak euskaraz izateko, baina administrazioa euskalduntzeari uko eginda

● Uema eta Behatokia: «Horrela ezin da euskarazko arreta bermatu»

Ion Orzaiz Iruñea

Euskarazko zerbitzua bermatu, zerbitzua euskaldundu gabe. Hori onartu zuen atzo Nafarroako Parlamentuak, osoko bilkuran. EH Bildu eta Geroa Bai taldeek hiru puntuko mozio bat aurkeztu zuten, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa tramite guztiak euskaraz egin ahal izatea bermatzeko: lehen bi puntuak aurrera ateratzen ziren; hirugarrena, berriz, ez.

Lehen puntuan, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio «berma dezala arreta telematikoare-

kin zerikusia duten eduki, tramite eta bestelako ekinbide guztiak euskaraz eskuragai daudela». Bigarrenean, gobernuko departamentu bakoitzeko hizkuntza planean zehatz dadila zeintzuk diren «beharrak», arreta hori euskaraz eskaini ahal izateko. Hirugarren puntuan, azkenik, gobernuari gaitzesten zaio departamentu bakoitzeko ezar ditzala «lanpostu elebidunen kopuru nahikoa eta zirkuitu elebidunak, euskarazko arreta bermatze aldera, bai telefonoz bai aurrez aurre». Azkeneko, administrazioari konpromiso handiena eskatzen dion azken

puntu hori izan zen atzera botatzen bakarra, Navarra Sumak eta PSNk kontra bozkatuta.

PSN, lauso

Saioaren hasieran, PSNk aie gehiago urardotu nahi izan zuen mozioa: zuzenketa bat aurkeztu zuen, EH Bilduren eta Geroa Baien testuko lehen bi puntuak moldatzeko. Itxura batean, ez zegoen alde handirik jatorrizko bertsioaren eta PSNk aurkeztutakoaren artean, baina suma zitekeen helburuak apaltzeko asmo bat. Hala, jatorrizkoan «gobernuak bermatuko du» edo «beharrezko

lanpostu kopurua ezarriko du» azaltzen zen tokian, aditz lauso eta zehaztugabeagoak paratu zituzten, eta lanpostu elebidunei buruzko aipamen guztiak kendu.

Navarra Sumako Marta Alvarez Alonso legebiltzarkidea izan zen PSNren jokabidea txarretsi zuena: «Lehen puntuaren alde bozkatuko dugu, eta besteen kontra, baina, egia esanda, egokiago iruditzen zaigu mozioaren erredakzioa EH Bilduk eta Geroa Bai aurkeztua zuten bezala. Argiagoda da. PSNk jendea nahasi nahi du, hitz hutsalen bidez, aldi berean alde eta kontra baleude bezala».



Udalek tramite telematikoaren %2,5 soilik egin ditzakegu euskaraz; hutsaren hurrengoa da hori, eta aldatu behar da»

Aitor Elexpuru

Berako alkatea eta Uemako kidea

«Departamentuetan lanpostu elebidunak ezarri nahi ez badute, nola bermatu nahi dute zerbitzu elebiduna?»

Agurte Gaubeka

Behatokiako zuzendaria

Hortaz, lehen puntu hori aho batez onartu zuten legebiltzarkideek, talde abertzaleek aurkeztutako eran.

Bigarren puntuan, PSNk Geroa Bai eta EH Bilduri aurkeztutako zuzenketa onartu zen, Navarra Sumaren babesik gabe. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak «ebaluazio bat» egingen du departamentu bakoitzeko plan linguistikoetan, euskarazko arreta bermatzeko beharrak ezagutzeko. Lanpostuei buruzko puntuan, baina, mozioak ez zuten babes nahikorik jaso: alde bozkatu zuten EH Bilduk, Geroa Bai, Ahal Dugu-k eta Ezkerrak (19 boto), eta kontra, berriz, PSNk eta Navarra Sumak (31 boto).

Kontrako botoa justifikatzeko, gobernuari eusten dioten taldeen artean «desadostasun nabarmenak» daudela esan zuen Inma Juriok (PSN). «Muturreko bi jarrearen arteko eztabaida» balitz bezala aurkeztu zuen auzia: «Batzuek uste dute beren eskubiak urratzen direla; beste sektore batek inposiziotzat jotzen du euskara aintzat hartzea. Guk uste dugu bi mutur horien artean fiabardura asko daudela».

Navarra Sumak, berriz, esan zuen administrazioa euskaldundu nahi izatea «errealitate soziolinguistikoa eta administratiboa desitxuratzea» dela: «Administrazioan euskarazko arreta jaso-

tzeko eskubidea ez da absolutua; hala balitz, ia postu guztietan exijitu beharko genuke euskaraz». Halako planteamendu bat funtzionario elebakarren kontrako «inposizioa» izanen litzatekeela argudiatuta, alternatiba bakarra proposatu zuten erregionalistek: «Itzulpen zerbitzua indartzea».

Behatokiarentzat, «eskasa»

Eztabaida parlamentarioak «sentsazio gazi-gozoa» utzi ziela nabarmendu zuen Aitor Elexpuru, Berako alkate eta Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea: «Mozioaren lehen puntuak onartu dituzte, baina baliabideak jarri behar dira euskarazko arretarako zerbitzu guztiak bermatzeko». Urtarrilean agerrialdia egin zuten Uemak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak parlamentuan, euskarazko arreta bermatzea eskatzeko. Orduan azaldu zuten herritarrek euskaraz egin ditzaketan tramite telematikoak %23 direla, eta udalei dagokienez egoera are makurragoa dela: «Egoera ez da alda-

tzten: udalek tramite elektronikoen %2,5 soilik egin ditzakegu euskaraz. Hori hutsaren hurrengoa da», esan zuen Elexpuru.

Behatokiako zuzendaria Agurte Gaubekak ere «baliabideak eta neurri zehatzak» eskatu zituen, egoera onbidatzeko: «Parlamentuko taldeek onartu dute Nafarroako Gobernuak euskarazko tramite elektronikoa bermatu behar dituela, baina argi dago bestelako neurriak behar direla: lanpostu elebidunak ezarri behar dira departamentuz departamentu, herritarrei arreta euskaraz eman ahal izateko. Izan ere, administrazioan euskarazko zirkuituak onartzen badira, herritarrek euskaraz artatzeko gai izango diren langileak beharko ditugu».

Hori dela eta, galdera bat planteatu zuten Behatokiako buruak lanpostu elebidunak ezartzearen aurka bozkatu zuten taldeei: «Nola bermatu nahi dute zerbitzu elebiduna, ez bada lanpostu elebidunak ezartzen eta euskaraz ez bada aintzat hartzen departamentuetako lan deialdietako meezimenduetan?». Gaubekak dei egin zion Nafarroako herritarrei, hizkuntza eskubideak «egunero» aldarrika ditzaten: «Eskatzen dugu zerbitzu eta tramite guztiak euskaraz, eta hala bermatzen ez zaienean, gugana jo dezatela, urratze guztiak dokumentatuz».